

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Rainergy euria energia bihurtzen duen teknologia berritzailea da, eta horregatik gure bezero-taldeak kontu handiz definitu ditugu. Bezero horiek energia berriztagarria, autonomia eta errentagarria nahi duten pertsonak eta erakundeak dira, eta euria maiz egiten den eremuetan kokatutakoak izaten dira.

1. Etxeak eta familiak gure segmentu nagusiak dira:

Etxe arruntetan bizi diren familia helduak, energia-kontsumoa jaitsi nahi dutenak eta ingurumenarekiko sentsibilitate handia dutenak. Gehienetan etxe propioak dituzte eta energia berriztagarria instalatzeko prest egoten dira. Horrez gain gehien bat: Euskal Herrian, Galizian, Asturiasen... erosiko dute bertan prezipitazio gehaigo egiten baitu.



Zergatik egokitzen zaie Rainergy?

- **Aurrezpen ekonomikoa:** euri ugari dagoenean energia asko sortzen da, eta hileko fakturan nabarmen nabaritzen da.
- **Eguzkia edo haizerik behar ez izatea:** teknologiaren malgutasuna dela eta, urte osoan funtzionatzen du, neguan ere.
- **Instalazio azkarra eta mantenu txikia:** etxeko teilatuan ez du aldaketa handirik behar.
- **Ingurumenarekiko errespetua:** energia garbia sortzen dute euren etxean bertan.
- **Baterien erabilera praktikoa:** sortutako energia mugikorra, ordenagailua, etxetresna txikiak... kargatzeko erabil daiteke.

2. Baserriak eta landa-etxeak

Baserri-jabeak, nekazariak, abeltzainak eta landa-inguruan bizi diren pertsonak. Askotan espazio zabalak dituzte, teilatu handi eta lursail zabalez osatuak. Hauek Ez dute energiaren prezio aldakorren menpe egon nahi. Gainera Rainergy-k ingurumen-jasangarritasuna sustatzen duenez, landa-ingurunean oso garrantzitsua den kontzeptua. Beraiei atzegina egiten zaie produktua.



Zergatik dira bezero ezin hobeak?

- **Plaka handiagoak instalatzeko aukera:** lur edo teilatu zabalak dituztelako.
- **Euri kopuru handia:** mendialdeko eta landa inguruko eskualdeetan urte osoan egiten du euri.

- **Autonomia energetikoa lortzea:** sarri hornidura-arazoak edo prezio altuak izaten dituzte, eta Rainergy-k laguntzen die euren energia propioa sortzen.
- **Errentagarritasun handia:** sortutako energia etxeko gailuetarako ez ezik, instalazio agrikola edo tailer txikietarako ere erabil daiteke.

3. Enpresa txiki eta ertainak

Denda txikiak, bulegoak, tailerrak, zerbitzu-enpresak eta eraikin komertzialak dituzten enpresak, batez ere teilatu handia dutenak **Rainergy** komeni zaiea.



- **Kostu energetikoen murrizketa nabarmena:** gure teknologia euri-energiaren intentsitatearen arabera egokitzen da eta energia sortzen du ia automatikoki.
- **Jasangarritasun-irudia hobetzea:** gaur egun enpresek gero eta gehiago erakutsi nahi dute ingurumenarekiko konpromisoa.
- **Instalazio malgua:** enpresaren tamainaren arabera modelatu daiteke (txikia, ertaina, handia).
- **Autonomia eta segurtas energetikoa:** hornidura-arazoak daudenean (batez ere landa-eremuetan), Rainergy-k babes energetikoa ematen die.

4. Bezero guztien ezaugarri komun nagusiak

- **Ingurumenarekiko sentsibiltate handia.**
Bezero hauek jasangarritasuna baloratzen dute eta euren energia-kontsumoak inguruan duen eragina murriztu nahi dute. Horregatik, energia garbia sortzen duten sistemak lehenesten dituzte.
- **Energia autonomoagoa eta garbiagoa nahi dute.**
Hornidura-enpresen menpe egon gabe energia sortu nahi dute. Autonomia handiagoa eta iturri ekologikoa izatea bi helburu nagusiak dira.
- **Prest daude hasierako inbertsioa egiteko, luzera begira aurrezkoa handia delako.**
Ulertzen dute hasierako kostua handikoa izan daitekeela, baina epe luzera Rainergy errentagarria dela, energiaren faktura nabarmen jaisten delako.
- **Teknologia berritzaile eta praktikoak probatzeko prest daude.**
Ez dute konplexutasunik nahi, baina bai teknologia eraginkorrak eta erabilera errazak. Rainergy-ren funtzionamendu automatikoa eta mantenu baxua puntu positiboak dira haienetzat.
- **Energia-faktura murriztu nahi dute eta merkeagoa den sistema baten bila dabilta.**

Helburu nagusia gastuak jaitea da. Euriak energia sortzen duenez, sortutako zati handia “doakoa” bihurtzen da, eta horrek hileko fakturan aurrezki handia ematen du

5. Non erabiliko da Rainegy?

Rainergy euria aprobetxatuz energia sortzeko diseinatutako gailua denez, bere erabilera egokiena euri-maiztasun handiko eremuetan kokatzen da. Instalazioa erraza da, eta bai hiri zein landa-inguruneetan jar daiteke.

Kokapen egokienak:

- Euri-intentsitate handiko hiriak eta herriak: ur-jasa aprobetxatuz etengabeko mikroenergia sortzeko.
- Landa-ingurune hezeak: baserriak, bordak edo isolatutako etxeak energiaren autokontsumerako.
- Teilatu zabalak eta terraza estaliak: ur-bilketa handia dutenez eraginkortasun altua lortzen da.
- Zelai zabalak edo azpiegitura irekiak: kiroldegia, frontoiak, pabiloi estaliak...
- Hainbat eraikinetan aplikazioa: eskolak, fabrikak, etxe arruntak zein komunitate energetikoak.

Merkaturatzeko estrategia:

Lehenengo fasean, Rainergy Euskal Herrian merkaturatuko litzateke, hemen euri-kantitate handia eta teknologia jasagarriekiko interesa baitago.

- Hasiera: Euskal Herria
- Hedapena: Kantauri kostalde osoa
- Etorkizunean: Europako eremu euritsuak, hala nola Britainia, Irlanda, Ipar Italia edo Herbehereak.

Rainergy-ren bezero-segmentuak oso argi daude: energia autonomoa, garbia eta errentagarria nahi duten pertsonak eta erakundeak, euriaren potentzial berria aprobetxatu nahi dutenak. Horri esker, gure produktuak merkaturatu leku paregabea eta aukera zabala du.